

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

GOBERNANTZAKO ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUA

519/2019 Foru Agindua, apirilaren 16koa, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdi politiko, federazio eta koalizioei dirulaguntzak emateari buruzkoa.

Departamentuko foru diputatuak honako agindu hau eman du 2019ko apirilaren 16an:

«Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako hauteskundeetara buruzko Eusko Legebiltzarren martxoaren 27ko 1/1987 Legeak hauteskunde-jarduerak eragindako gastuetarako lurralde historiko bakoitzeko aurrekontuen kontura emango diren dirulaguntzak arautzen ditu 11. artikuluan. Finantzaketa publiko horretan bi kontzeptu sartzen dira:

a) Hautatutako batzarkide bakoitzeko kopuru finko bat: Eusko Legebiltzarreko egin diren azken hauteskundeetan jarlekuko ezarri den dirulaguntzaren % 40 adinakoa.

b) Kopuru finko bat, udal hauteskundeetan hautagai-zerrenda bakoitzak lortutako boto bakoitzeko ezarri den dirulaguntzaren adinakoa, baldin eta, hautagai-zerrendako kide bat gutxienez batzarkide hautatua izan bada.

11. artikuluan a) letran xedatutakoa betetzeko, kontuan hartu beharko da Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2016ko abuztuaren 8ko Agindua, Eusko Legebiltzarreko hauteskundearen ekainaren 15eko 5/1990 Legean jasotako zenbatekoak eguneratzeari buruzkoa (abuztuaren 10eko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 151. zk.). Agindu horrek hogeita sei mila zazpiehun eta hirurogeita bat euro eta laurogeita bederatzizentimoko (26.761,89 euro) dirulaguntza ezartzen du 2016ko irailaren 25ean egin ziren Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetan lortutako eserleku bakoitzeko. Beraz, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan, kontzeptu honi dagokionez, dirulaguntza hamar mila zazpiehun eta lau euro eta hirurogeita hamasei zentimokoa (10.704,76 euro) izango da hautatutako batzarkide bakoitzeko.

Bestalde, 11. artikuluan b) letran xedatutako ondorioetarako, Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 193. artikulua udal hauteskundeetako gastuetarako dirulaguntzak kalkulatzeko arauak ezartzen ditu; eta kopuru bat finkatzen du hautagai-zerrenda bakoitzak lortutako boto bakoitzeko, baldin eta zerrendako kide bat, gutxienez, zinegotzi hautatu badute. 193. artikuluan 4. zenbakian aurreikusten denez, bertan ezarritako kopuruak Ogasun Ministerioaren agindu bidez eguneratuko dira, dagozkion hauteskundearen deialdia egin eta ondorengo 5 egunen barruan. Aurreikuspen hori betetze aldera, apirilaren 3ko HAC/394/2019 Aginduak (apirilaren 6ko 83. zk. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*) 0,54 eurotan finkatu du kontzeptu hau dela eta aplikatu beharreko zenbatekoa.

Hauteskunde-gastuen finantzaketa publikoa nola gauzatuko den araututa dago Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko Lege Organikoaren 127. eta hurrengo artikuluetan. Hiru fase hauek bereizten dira:

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA Y COMUNICACIÓN CON LA SOCIEDAD

Orden Foral 519/2019, de 16 de abril, sobre concesión de subvenciones a partidos políticos, federaciones y coaliciones que concurran a las elecciones a Juntas Generales de Gipuzkoa.

El diputado foral del Departamento ha dictado, con fecha 16 de abril de 2019, la siguiente orden:

«La Ley del Parlamento Vasco 1/1987, de 27 de marzo, de Elecciones para las Juntas Generales de los Territorios Históricos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, regula en su artículo 11 la subvención, con cargo a los presupuestos de cada territorio histórico, de los gastos que originen las actividades electorales. La financiación pública engloba dos conceptos:

a) Una cantidad fija por cada juntera o juntero electo, equivalente al 40 % de la subvención por escaño que se haya señalado en las últimas elecciones al Parlamento Vasco que se hubieran celebrado.

b) Una cantidad igual a la que se hubiera fijado para las elecciones municipales por cada uno de los votos obtenidos por la candidatura, siempre que, al menos, uno o una de sus miembros hubiera sido elegido juntero o juntera.

A los efectos de la letra a) del artículo 11, debe aplicarse la Orden de 8 de agosto de 2016, del consejero de Hacienda y Finanzas, sobre actualización de cuantías contenidas en la Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco (*Boletín Oficial del País Vasco* n.º 151, de 10 de agosto). Dicha orden establece como subvención por gastos electorales la cantidad de veintiséis mil setecientos sesenta y un euros y ochenta y nueve céntimos (26.761,89 euros) por cada escaño obtenido en las últimas elecciones al Parlamento Vasco, celebradas con fecha de 25 de septiembre de 2016. Por tanto, en las elecciones a Juntas Generales de Gipuzkoa, la subvención por gastos electorales en este concepto ascenderá a la cantidad de diez mil setecientos cuatro euros y setenta y seis céntimos (10.704,76 euros) por cada juntero o juntera electa.

Por su parte, a los efectos de la letra b) del artículo 11, el artículo 193 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General (LOREG), establece las reglas para el cálculo de las subvenciones de gastos electorales municipales y fija un importe por cada uno de los votos obtenidos por la candidatura, siempre que una o uno de sus miembros, al menos, hubiera sido proclamado concejal. Según prevé el número 4 del artículo 193, mediante orden del Ministerio de Hacienda se actualizarán las cuantías fijadas en el citado precepto, en los 5 días siguientes a la convocatoria de las correspondientes elecciones. En cumplimiento de la citada previsión, la Orden HAC/394/2019, de 3 de abril (*Boletín Oficial del Estado* n.º 83 de 6 de abril), fija la cantidad aplicable por este concepto en 0,54 euros.

La forma de hacer efectiva esta financiación pública de los gastos electorales viene regulada en los artículos 127 y siguientes de la LOREG. Así, se distinguen las siguientes tres fases:

– Lehenengoa, hauteskundeak izan aurrekoa, azken hauteskunde baliokideetan lortutako emaitzen eta hauteskunde horiek direla eta eskuratuko dirulaguntzaren zenbatekoaren araberako aurrerakina; aipatu zenbatekoaren % 30 gainditu gabe.

– Bigarren fasea, hauteskundeen ondorengoa, lortutako emaitzen araberako aurrerakin berri bat, beti ere aurretik Kontuen Auzitegiari sarrera eta gastuen kontabilitate xehatua eta dokumentatua aurkeztu badiote. Dirulaguntzaren % 90 artekoa izan daiteke aurrerakin hau.

– Hirugarren fasea dirulaguntzaren behin betiko likidazioarena da: Kontuen Auzitegiaren fiskalizazioaren ondoren egiten dena.

Halaber, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legeak 151. artikuluan ezartzen dituen dirulaguntzen aurrerakinak ematera behartzen du Eusko Jaurilaritza (lege beraren 144. artikulua): Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan ordezkariak lortu zituzten alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteei eta Hauteskunde Araubide Orokorriari buruzko Lege Organikoak aurreikusitako portzentaje muga berdinekin, eman ere.

Aitzitik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikotako Batzar Nagusietarako hauteskunderi buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legeak ez ditu hauteskunde-gastuetarako dirulaguntzen aurrerakinak aipatzen; eta, beraz, ez dio Gipuzkoako Foru Aldundiari inolako eginbeharririk ezartzen hauteskundeen dei-egile den aldetik.

Hala ere, Hauteskunde Araubide Orokorriari buruzko Lege Organikoaren araubide orokorraren mende dauden zuzeneko sufragio unibertsaleko hauteskunde guztietan dirulaguntzak aurreratzea arau orokorra denez, bidezkoa iruditu zaio irizpide bera aplikatzeari; Araba eta Bizkaiko foru aldundiek bakoitzak bere lurralde historikoan deitutako hauteskunde prozesuetarako ezarritako irizpide bera baita, gainera.

Horiek horrela, apirilaren 1eko 1/2019 Foru Dekretuaren bidez deitutako Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetara (datorren maiatzaren 26an egingo direnetara) aurkeztuko diren alderdi politiko, federazio edo koalizioei hauteskunde-gastuengatik dagozkien dirulaguntzen aurrerakin zenbatekoak eta horiek emateko prozedura ezartzen ditu foru agindu honek.

Hori dela eta, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 40.2.f) artikuluan eta Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko urtarrilaren 31ko 7/2017 Foru Dekretuak 1.1.e) artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, foru diputatu honek

EBAZTEN DU

Lehenengo. Hauteskunde-gastuetarako dirulaguntzak.

1. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikotako Batzar Nagusietarako hauteskunderi buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legeak 11. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, apirilaren 1eko 1/2019 Foru Dekretuak deitutako Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetara (datorren maiatzaren 26an egingo direnetara) aurkeztzen diren alderdi politiko, federazio edo koalizioei hauteskunde-gastuetarako dirulaguntza hauek emango dizkie Gipuzkoako Foru Aldundiak:

a) Hamar mila zazpiehun eta lau euro eta hirurogeita hamasei zentimo (10.704,76 euro), hautatutako batzarkide bakoitzeko.

b) Berrogeita hamalau zentimo (0,54 euro) hautagai-zerrendak lortutako boto bakoitzeko, baldin eta zerrendako kide bat, gutxienez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko batzarkide hautatu badute.

– Una primera, previa a la celebración de las elecciones, en concepto de adelanto, que se otorga en función de los resultados obtenidos en las últimas elecciones equivalentes y de la cuantía percibida en dichas elecciones, no pudiendo superar el 30 % de dicha cuantía.

– La segunda, ya posterior a la votación, también como adelanto, que se concede en función de los resultados electorales obtenidos y después de haber presentado ante el Tribunal de Cuentas una contabilidad detallada y documentada de los ingresos y gastos. Este adelanto se sitúa en el 90 % del importe de la subvención.

– Y, por último, la tercera fase consiste en la liquidación definitiva de la subvención, tras la fiscalización del Tribunal de Cuentas.

También la Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco, en su artículo 144, obliga al Gobierno Vasco a conceder adelantos de las subvenciones que establece el artículo 151 de la propia ley, a los partidos políticos, federaciones, coaliciones o agrupaciones electorales que hubieran obtenido representantes en las últimas elecciones al Parlamento Vasco, con el mismo límite porcentual previsto en la LOREG.

Al contrario, la Ley 1/1987, de 27 de marzo, de Elecciones para las Juntas Generales de los Territorios Históricos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, no hace ninguna referencia a la cuestión de los adelantos de las subvenciones de gastos electorales, por lo que no impone a la Diputación Foral de Gipuzkoa, en cuanto administración convocante, ningún deber en este sentido.

No obstante, considerando que el adelanto de las subvenciones es regla general en todas las elecciones por sufragio universal directo sujetas al régimen general de la LOREG, parece procedente aplicar el mismo criterio, que es, además, compartido con las diputaciones forales de Álava y Bizkaia en relación con los procesos electorales por ellas convocados en sus respectivos territorios históricos.

Por consiguiente, mediante la presente orden foral, se establecen las cuantías y el procedimiento para la concesión de los adelantos de subvenciones de gastos electorales a los partidos políticos, federaciones o coaliciones que concurren a las elecciones a Juntas Generales de Gipuzkoa convocadas por Decreto Foral 1/2019, de 1 de abril, y que se celebrarán el próximo 26 de mayo.

En su virtud, en uso de las atribuciones que le confieren el artículo 40.2.f) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa y el artículo 1.1.e) del Decreto Foral 7/2017, de 31 de enero, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad, este diputado foral

RESUELVE

Primero. Subvenciones de gastos electorales.

1. En aplicación del artículo 11 de la Ley 1/1987, de 27 de marzo, de Elecciones para las Juntas Generales de los Territorios Históricos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, la Diputación Foral de Gipuzkoa concederá las siguientes subvenciones de gastos electorales a los partidos políticos, federaciones o coaliciones que concurren a las elecciones a Juntas Generales de Gipuzkoa a celebrar el próximo 26 de mayo, convocadas por Decreto Foral 1/2019, de 1 de abril:

a) Diez mil setecientos cuatro euros y setenta y seis céntimos (10.704,76 euros) por cada juntero o juntera electa.

b) Cincuenta y cuatro céntimos (0,54 euros) por cada uno de los votos obtenidos por la candidatura, siempre que, al menos, uno o una de sus miembros hubiera sido elegido juntero o juntera en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. Hauteskunde-gastuen finantzaketa publikoa hiru fase hauetan egingo da: hauteskondeen aurreko aurrerakinak; hauteskondeen ondorengo aurrerakinak; eta emandako dirulaguntzen likidazioa.

3. Foru agindu honek aipatzen dituen aurrerakinak emango dira, ematekotan, bertan ezarritakoari jarraikiz eskatzen badira.

Bigarren. Dirulaguntzen hauteskunde-aurreko aurrerakinak.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak hauteskunde-gastuetarako dirulaguntzen aurrerakinak emango dizkie Gipuzkoako Batzar Nagusietarako azken hauteskundeetan (2015eko maiatzaren 24an egindakoetan) dirulaguntzak eskuratutako zituzten alderdi, federazio eta koalizioei –gerora dirulaguntza horietarako eskubidea galdu ez dituztenei–.

2. Aurreratutako zenbatekoak ez du gaindituko Gipuzkoako Batzar Nagusietarako 2015eko maiatzaren 24ko hauteskundeetan alderdi politiko, federazio edo koalizio horiek beraiek jasotako dirulaguntzaren % 30a.

Hirugarren. Hauteskondeen aurreko aurrerakinak emateko prozedura.

1. Hauteskunde-administratzaileek Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordearen aurrean eskatu ahal izango dituzte aurrerakinak, 2019ko apirilaren 23tik 25era bitartean.

2. Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordearen baitan jaso ostean, Gipuzkoako Foru Aldundiak hauteskunde-administratzaileen eskura jarriko ditu dagozkien aurrerakinak 2019ko maiatzaren 1etik aurrera.

3. Alderdi politiko, federazio edo koalizio bakoitzari hauteskunde-gastuengatik dagokion behin betiko dirulaguntzaren zenbatekoari emandako aurrerakina kenduko zaio.

Laugarren. Dirulaguntzen hauteskunde-ondorengo aurrerakinak.

1. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Batzar Nagusietarako hauteskondeei buruzko martxoaren 27ko 1/1987 Legearen 11. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten alderdi, federazio eta koalizioei hauteskunde-gastuetarako dirulaguntzen aurrerakinak emango dizkie Gipuzkoako Foru Aldundiak.

2. Eskualdeko hauteskunde-batzordeek egindako aldarrikatze-aktetan jasotako datuen arabera alderdi politiko, federazio edo koalizioak lortu dituen hauteskunde-emaitzak hartuko dira kontuan dagokion zenbatekoa kalkulatzeko; eta zenbateko horren % 90 artekoa izango da aurreratutako kopurua, foru agindu honen bigarren atalean aipatutako aurrerakina kenduta, horrelakorik balego.

Bosgarren. Hauteskondeen ondorengo aurrerakinak emateko prozedura.

1. Hauteskondeen ondorengo aurrerakinak eskaerak hautagai-zerrenden administratzaileek aurkeztu beharko dizkiote Gipuzkoako Foru Aldundiari: bitarteko elektronikoen bidez, Foru Aldundiaren erregistro elektronikoa (<https://egoitza.Gipuzkoa.eus>). Hala xedatzen du Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 14.2 artikuluan.

2. Herri Kontuen Euskal Epaitegian hauteskunde-sarrereri eta -gastuei buruzko kontabilitate zehaztua eta dokumentatua aurkeztu izana frogatzeko agiria erantsi behar zaio aurreko zenbakian aipatu eskaerari. Herri Kontuen Euskal Epaitegian aurkeztu beharrekoa aurkezteko epea 2019ko irailaren 3tik 28ra izango da.

3. Halaber, talde politiko horietako hautetsiek batzarkide izaera osoa bereganatu dutela eta karguan benetan ari direla zalantzarik gabe egiaztatzen duen Batzar Nagusien ziurtagiria aurkeztu beharko da.

2. La financiación pública de los gastos electorales se realizará en las siguientes tres fases; concesión de adelantos pre-electorales; concesión de adelantos postelectorales; y liquidación de las subvenciones concedidas.

3. Los adelantos a los que se refiere la presente orden foral se concederán, en su caso, siempre que se soliciten en los términos previstos en la misma.

Segundo. Adelantos preelectorales de subvenciones.

1. La Diputación Foral de Gipuzkoa concederá adelantos de las subvenciones por los gastos electorales ocasionados, a los partidos, federaciones y coaliciones que las hubieran obtenido en las últimas elecciones a Juntas Generales de Gipuzkoa celebradas en fecha de 24 de mayo de 2015 y no se hubiesen visto privadas de las mismas con posterioridad.

2. La cantidad adelantada no podrá exceder del 30 % de la subvención percibida por el mismo partido político, federación o coalición en las últimas elecciones a las Juntas Generales de Gipuzkoa, celebradas en fecha 24 de mayo de 2015.

Tercero. Procedimiento de concesión de adelantos preelectorales.

1. Los adelantos podrán solicitarse ante la Junta Electoral del Territorio Histórico de Gipuzkoa por las y los respectivos administradores electorales entre los días 23 y 25 de abril de 2019.

2. A partir del día 1 de mayo de 2019, la Diputación Foral de Gipuzkoa, previa autorización de la Junta Electoral del Territorio Histórico, pondrá a disposición de los y las administradores electorales los adelantos correspondientes.

3. Los adelantos concedidos se descontarán del importe de la subvención electoral que finalmente corresponda a cada partido político, federación o coalición.

Cuarto. Adelantos postelectorales de subvenciones.

1. La Diputación Foral de Gipuzkoa concederá adelantos de las subvenciones por los gastos electorales ocasionados, a los partidos, federaciones y coaliciones que hubieran alcanzado los requisitos exigidos en el artículo 11 de la Ley 1/1987, de 27 de marzo, de Elecciones para las Juntas Generales de los Territorios Históricos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.

2. La cantidad adelantada será equivalente al 90 % de la cuantía de la subvención calculada teniendo en cuenta los resultados electorales que haya obtenido el partido político, federación o coalición de acuerdo con los datos resultantes de las actas de proclamación expedidas por las juntas electorales de zona; y descontado, en su caso, el anticipo a que se refiere el apartado segundo de la presente orden foral.

Quinto. Procedimiento de concesión de adelantos postelectorales.

1. Las solicitudes de adelantos postelectorales se formularán por las y los respectivos administradores de las candidaturas ante la Diputación Foral de Gipuzkoa; y, de conformidad con lo previsto en el artículo 14.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, deberán presentarse por medios electrónicos, en el registro electrónico de la Diputación Foral (<https://egoitza.Gipuzkoa.eus>).

2. Las solicitudes referidas en el número anterior irán acompañadas de la justificación de la previa presentación ante el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas de una contabilidad detallada y documentada de los respectivos ingresos y gastos electorales; presentación que deberá producirse entre los días 3 y 28 de septiembre de 2019.

3. Igualmente, deberá adjuntarse la certificación expedida por las Juntas Generales de Gipuzkoa que acredite fehacientemente la adquisición por los y las electas pertenecientes a dichas formaciones políticas de la condición plena de junteros y junteras y el ejercicio efectivo del cargo.

4. Gainera, aurreratutako dirulaguntzaren % 10ari dagokion banku-abala aurkeztu beharko da; eta aurkezten ez bada, eskaera izapidetu egingo da, baina ehuneko hori atxikiko da egindako kuantifikazioan.

5. Eskaera aurkeztu eta hurrengo hogeita hamar (30) egunen barruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak dagozkien aurrerakinak alderdi, federazio eta koalizioen hauteskunde-administratzaileen eskura jarriko ditu. Edonola ere, administratzaileek jakinarazi badiote Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hauteskunde Batzordeari dirulaguntzak –osorik edo zati bat– aurretiaz zehaztutako banku-erakundeek ordaintzeko –bankuek emandako aurrerakinak edo kredituak konpentsatze aldera–, Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazpen horretan ezarritakoaren arabera egingo du ordainketa; eta jakinarazpen hori ezin izango da baliogabetu kreditu-erakunde onuradunaren baimenik gabe.

6. Dagokion talde politikoko kideren bat Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 6.2.b) artikuluan aurreikusi egoeran baldin badago, ezingo da aurrerakin hau eman.

Seigarren. Hauteskunde-gastuetarako dirulaguntzen likidazioa eta banku-abalaren itzulketak.

1. Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, dagokion fiskalizazio-eginkizuna baliatuz eta txosten arrazoituaren bidez, hauteskunde-kontabilitateak zuzen daudela adierazi ondoren likidatuko du Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntzen zenbatekoa; eta, hala balegokio, aurkeztutako banku-abala itzuliko du.

2. Edonola ere, alderdi, federazio edo koalizio bakoitzari hauteskunde-gastuengatik dagokion behin betiko dirulaguntzari emandako aurrerakinak kenduko zaizkio.

3. Emandako aurrerakinen zati bat itzuli beharko da, haien zenbatekoak alderdi, federazio edo koalizio bakoitzari hauteskunde-gastuengatik dagokion behin betiko dirulaguntzaren zenbatekoa gainditzen duenean.

Zazpigarren. Gastua baimentzea.

Foru agindu honen bigarren eta hirugarren ataletan aipatzen diren hauteskunde aurreko aurrerakinei aurre egiteko, berrehun eta hamazazpi mila eta hogeita lau euro eta hirurogeita hamabi zentimoko (217.024,72 euro) gastua baimentzen da, aurrekontuko 0310.100.481.00.01.2019 kontu sailaren kargura.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek foru agindu honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsioa aurkezteko foru diputatu honi, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.»

Hau guztia denen jakinaren gainean jartzen da.

Donostia, 2019ko apirilaren 16a.—Juan José de Pedro Alonso, Departamentuko idazkari teknikoa. (2552)

4. Además, deberán presentar aval bancario por el 10 % de la subvención que se anticipa; y, de no hacerlo, se tramitará la solicitud reteniendo dicho porcentaje de la cuantificación realizada.

5. La Diputación Foral de Gipuzkoa, en el plazo de treinta (30) días posteriores a la presentación de las solicitudes, pondrá a disposición de las y los administradores electorales de los partidos, federaciones y coaliciones los adelantos correspondientes, a no ser que hubieran notificado a la Junta Electoral del Territorio Histórico de Gipuzkoa que las subvenciones sean abonadas en todo o en parte a las entidades bancarias que designen, para compensar los anticipos o créditos que les hayan otorgado. La Diputación Foral de Gipuzkoa verificará el pago conforme a los términos de dicha notificación, que no podrá ser revocada sin consentimiento de la entidad de crédito beneficiaria.

6. No procederá la concesión de este adelanto cuando en la formación política figuren personas en quienes concurra la circunstancia a la que se refiere el artículo 6.2.b) de la LOREG.

Sexto. Liquidación de subvenciones de gastos electorales y devolución del aval bancario.

1. La liquidación del importe de las subvenciones por la Diputación Foral de Gipuzkoa y, en su caso, la devolución del aval bancario presentado, se realizará una vez que el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas se pronuncie, en el ejercicio de su función fiscalizadora, sobre la regularidad de las contabilidades electorales mediante informe razonado.

2. En todo caso, los adelantos concedidos se descontarán del importe de la subvención de gastos electorales que finalmente corresponda a cada partido, federación o coalición.

3. Procederá el reintegro parcial de los adelantos concedidos cuando la cuantía de los mismos supere el importe de la subvención de los gastos electorales que con carácter definitivo corresponda a cada partido, federación o coalición.

Séptimo. Autorización de gasto.

Para hacer frente a los adelantos preelectorales a los que se refieren los apartados segundo y tercero de la presente orden foral, se autoriza un gasto de doscientos diecisiete mil veinticuatro euros y setenta y dos céntimos (217.024,72 euros), con cargo a la partida presupuestaria 0310.100.481.00.01.2019.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.»

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 16 de abril de 2019.—El secretario técnico del Departamento, Juan José de Pedro Alonso. (2552)